

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jarduera sailkatuaren baimen eskaera

Jarraian aipatu diren pertsonen jarduerarako udal baimena eskatu dute ondoren adierazitako lekuetarako:

Eskatzailea: Viñalava SL.

Jarduera: ardogintzarako eta ardoa ontzeko upeltegia.

Helbidea: Poveda etorbidea, 21; 2 poligonoko 1123 lurzatia.

Horregatik, eta bat etorri 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Herriko ingurumena babestekoak, 58. artikuluan xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da, jarduera horiek kalte egiten dietela irizten diotenek aukera izan dezaten jarduera horiei loturiko espedienteak aztertzeko, jendearentzako ordutegian eta udal bulegoetan (Plano plaza, 9), eta egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Lapuebla de Labarca, 2020ko maiatzaren 4a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ